



Alberto Iñurrategi
Andoingo Mendi Astean
izango da

Zurrumurruen aurka eta elkarbizitzaren alde

Andoingo Udalak eta SOS Arrazakeria erakundeak bi hitzordu sustatu nahi dituzte.

Bizilagunak bertako eta atzerri-
tik etorritako norbanakoak eta
famiak mahai baten inguruan
elkartzea helburu duen egitas-
moa da. Edonork parte har de-
zake, jende berria ezagutzeko
jakin-mina duen guztiak eman
dezake izena. Aurtengoan, Gi-
puzkoan hitzordua azaroaren
19an izango da. Familian, tal-
dean edota banaka izena eman
daiteke. Sustatzaileek maiz
adierazi izan dutenez, estereoti-
poak hausten dituen bazkari
multikulturalaz gozatzeko au-
kera da.

Zurrumurruak Stop tailerra,
hein handi batean, estereotipo-
ak eta aurreiritziak gainditzeko
antolatu dute. Hori ere Andoi-
nen izango da, azaroaren 13an.
Andoingo aurkezpen ekital-
dian adierazi zuten, "emigra-



SOS Arrazakeriak eta Andoingo Udalak ekimena aurkeztu zuten, hainbat herrikiderekin batera.

zioren gainean eduki ditzake-
gun iritziak auzitan jartzeko
aproposa da. Hala nola, gure
artera etortze hutsagatik etxe-
bizitzak eskuratzeko abantail-
ak edukitzen dituztela...,
Eraiki diren ideia oker horiek
hausteko, tailerrean errealita-
tea zein den erakusten da".

TAILERRA
ZUZURRUMURRUAK STOP
"Emigrazioen gainean eduki di-
tzakegun iritziak auzitan jartze-
ko proposa". Tailerra SOS
Arrazakeriako kide Agustin Un-
zurrunzagak gidatuko du.
18:30 Urigain.
Azaroak 13, astelehena.

BAZKARIA
BIZILAGUNAK
Bertako familia atzerri-
tik etorritako familiarekin bazkari
batean biltzen dituen egitas-
moa da. Bi familiekin dinami-
zatzaile bat biltzen da, harre-
manak erraztu ahal izateko.
Azaroak 19, igandea.

Erabakitze eskubidea ardatz duen herri galdeketa Andoainen

Azaroaren 5ean
andoaindarrek botoa
emateko aukera izango
dute.

Erabakitze eskubidearen alde-
ko Andoain Esan ekimenak he-
rri galdeketa antolatu du, igan-
de honetarako. Herrian bertan
errolatuta dauden 16 urtetik
gorakoek botoa emateko esku-
bidea izango dute Zumea pla-
zan, Juanita Alkain plazan eta
Goikoplazan ipiniko dituzten
hautetsontzietan. Egun horre-
tan kanpoan denak aurretiazko
botoa eman dezake Kale Berri-
ko egoitzan.

[ANDOAIN, 6-9. ORR.]



Giza-katea egin zuten joan zen larunbatean.

Motor hotsak Erratzun, igandean



Motor zaletuek hitzordua
dute Urnietan, igande ho-
netan 10:30ean hasita. Le-
henago egiaztapen probak
egingo dituzte. Bertan
aparkatzen dutenek adi ibi-
li beharko dute, bezperatik
bertan aparkatzea galerazi-
ko baitzaie.

[URNIETA, 3. ORR.]

Odol emaileen bilkura



Urnietako taldeak antola-
tuta, joan zen asteburuan
eskualdeko eta Tolosalde-
ko odol-emaileak Oianu-
men bildu ziren.

[URNIETA, 3. ORR.]

Errigora kanpaina



Azaroaren 14ra arte Nafa-
rroa hegoaldeko produk-
tuez osatutako saskiak es-
katzeko tarte izango da.

[ESKUALDEA, 2. ORR.]

NAFARROAKO ERIBERAKO EUSKALGINTZAREN ETA BERTAKO EKOIZLEEN ALDEKO EUSKAL HERRI MAILAKO KANPAINA

Nafarroako euskalgintzari laguntzeko Errigora kanpaina

Elikadura arduratsua geroz eta garrantzia handiagoa hartzen ari den garaiotan, Euskal Herrian bertako produktuak sustatu eta bide batez euskalgintza diruz laguntzeko Errigora kanpaina abiatu zen

duela urte gutxi. 50 euroekin Nafarroako Erriberako jaki goxoak eskuratzeko aukera dago, jakinik gainera, diru horren %25a Nafarroako euskara sustatzeko erabiliko dela.

Azaroaren 14ra arte Nafarroa hegoaldeko produktuez osatutako saskiak eskatzeko tartea izango da. Kanpainaren aurkezpen ekitaldian **Eneko Guridi** Errigorako lantaldeko kideak honakoa nabarmendu zuen: "Nafar hegoaldeko euskalgintzak hain beharrezkoa duen elkartasunezko bultzada anaikor bat bidaltzeko garaia heldu da; baita zonalde hartako nekazariari beraien ogibidean laguntzekoa, edota ekimen alai, anitz eta behetik gorakoa hauspotzekoa ere bai. Alegia, herria egitekoa."



HERNANIN SALGAI

AEK, Langile Ikastola, Karabeleko Ekonekazaritza eta Lurreko Ekodenda.

ANDOAINEN SALGAI

Aita Larramendi ikastola, AEK eta Ermitza Liburudenda.

BI SASKI AUKERAN

SASKI ZURIA

50 euro. Epea: Azaroak 14.

Zainzuri estra lodiak (Iturri, El Agricultor edo Larrinaga) Orburu-bihotzak (Ebron edo Maria Jesus), Pikillo piper osoak (El Escolar, Iturri edo El Agricultor), Ardo beltz ekologikoa (Azpea, Lezaun, Mendiko edo Bagordi), Ozpina ekologikoa (Mendiko edo Lezaun), Melokotoia almibarrean (Almanaque), Pasta ekologikoa (Martinelli), Arroza (El Alcaraván), Teilak (El Molinero edo Monasterio de Cascante), Patxaran-pastak (Urrutia), Molineritoak (El Molinero), Tomatea olioarekin (Pedro Luis), Pikillo piper mamia (Gobeiaberri).

SASKI BELTZA

50 euro. Epea: Azaroak 14.

Zainzuri estra lodiak (Iturri, El Agricultor edo Larrinaga) Orburu-bihotzak (Ebron edo Maria Jesus), Pikillo piper osoak (El Escolar, Iturri edo El Agricultor), Ardo beltz ekologikoa (Azpea, Lezaun, Mendiko edo Bagordi), Ozpina ekologikoa (Mendiko edo Lezaun), Melokotoia almibarrean (Almanaque), Olibaolio birjina estra (Bardea, Castillo de Abiltas, Ekolo, La casa del aceite edo Biosasun), Mahats-zuku ekologikoa (Ekolo), Potxak (Maria Jesus), Aran-marmelada (Pedro Luis), Almendrak (Ablitasgo kooperatiba), Kardu ekologikoa (La Churta), Pikillo saltsa (Maria Jesus).

Nafarroa hegoaldeko euskararen normalizazioak hauspoa behar du, lagun gaitzazu



Kutxa zuria

orburuak	arroza
zainzuriak	pikillo piper
pikillo piperrak	mamia
ardoa	patxaran pastak
ozpina	molineritoak
melokotoia	tomatea
almibarrean	olioarekin
pasta	teilak

ERRIGORA

e
u
s



Kutxa beltza

orburuak	aran
zainzuriak	marmelada
pikillo piperrak	mahats zukua
ardoa	almendrak
ozpina	oliba olio
melokotoia	pikillo
almibarrean	saltsa
potxak	kardoa

Hezkuntza sistemari loturiko hausnarketa prozesua martxan

Egitasmo berritzailea

Urnieta hezkuntzari loturiko egitasmo berritzailean murgildu da, Bizkaiko Santurtzi eta Arabako Laguardiarekin batera. Euskadiko Eskola Kontseiluak eta Urnietako Udalak sustatuta, "Hezkuntza hobetu: jakin, partekatu eta elkarriketatu" egitasmoan murgildu dira Urnietako lau ikastetxeak. Udalak adierazi duenez, "helburua hezkuntzari buruzko eztabaida zorrotz eta sakon bat sortzea da, egungo hezkuntza sisteman funtzionatzen ez duten gauzak hautemateko eta aldatzeko. Azken finean, hezkuntza sistema hobetzea eta egungo testuingurura eta beharretara egokitzea. Halaber, irakasleei merezi duten aitortza soziala eman nahi zaie".



Dagoeneko lanean ari dira. Ostegun honetan, esaterako, ikastetxe guztietako guraso elkarteekin bilera egitekoak dira. Eta datorren azaroaren 8an ikastetxeetako irakasleei bideratutako jardunaldia antolatuko dute euskara, aniztasuna edota

ebaluazioaz hausnarketa egiteko. 2018ko urtarrilean agerraldia egitekotan dira Eusko Legebiltzarrean. Hausnarketaren ondorioak eta hobetzeko proposamenak Euskadiko ordezkari politikoko gorenei helarazteko asmoa dute.

Helduen bertso eskola martxan jartzeko asmoa



Eli Pagola bertsolari hernaniar ezaguna izango da irakaslea.

Datorren urtarrilean jarriko da martxan, Urnietan, helduen bertso eskola. Hitzarekin jolastu eta ondo pasa nahi duen orori zuzendua. Irakaslea, Eli Pagola, bertsolari hernaniar ezaguna izango da.

Bertan parte hartzeko interesa izanez gero, bidali email bat ondoko helbidera: herna-

nikobertsoeskola@gmail.com edo eman izena Idiazabal kaleko Xauxar tabernako zerrandan, izena eta telefono zenbakia emanez, eta antolatzailerak jarriko dira guztiaren harremanetan behar den informazio guztia helarazteko.

Izen-emateko epea, dagoeneko irekia dago eta azaroaren 30ean itxiko da.

'Slalom Urnieta' motor erakustaldia, igandean



Iazko edizioari jarraipena emanez, Xoxoka Motor klubak bigarren slalom proba antolatu du igande honetarako. Parte hartzen duten gidariak zirkuitua osatu beharko dute. Abiadura eta trebezia, proba baten konbinaketa ondo egiten duenak irabaziko du. Motor

zaletuek hitzordua dute Erratzun, igande honetan 10:30ean hasita. Lehenago egiaztapen probak egingo dituzte. Esmelat enpresaren parean dagoen aparkaleku handian ezingo da aparkatu, azaroaren 4ko arratsaldeko 15:30etik aurrera.

ODOL-EMAILEEN BILKURA URNIETAN



Javier Pastorrek odol-emaile bereziaren aipamena jaso zuen.



Aipamen berezia jaso zuten Urnietako odol-emaileak lau izan ziren: Jose Miguel Ruiz, Berta do Santos, Ana Jesus Salsamendi, Jose Ignacio Rodriguez.



Aipamen berezia jaso zuten Andoaingo Pablo Hernaez, Eugenia Montero eta Beatriz Bravo odol-emaileak Joxe Mari Tolosarekin batera.

Giro ederrean igaro zen odol-emaileen bilkura, eta bertaratu zirenak oso gustura joan zirela adierazi dute Urnietako odol-emaileek. Haiei zegokien aurtengo ospakizuna antolatzaren ardura. Udalaren ekimenez, ekitaldiaren hasieran dantzariak eta txistulariak odol-emaile guztien ohorez dantzatu zuten. Omenduen artean, Urnietan bizi den Javier Pastorrek odol-emaile bereziaren aipamena jaso zuen.

USURBIL
Noaia'n
HULGIKALDIA
2017
Azaroaren 3tik 12ra

azaroak 5, Asteia 19:00
ALEJANDRO TAPIA...
OMENEZKO EKITALDIA
ERANDEKETA IRAKURKETA

azaroak 5, Asteia 19:00
JAKOBA ERROKALDE...
ANDON OLIVERA...
LARRARREN LANTZEN
LIBURU ARGITZERIA

azaroak 5, Asteia 19:30
HANTU BERTSO JIRA
JON MAIA ETA ALAIA
MARTIN BERTSOLARIKIN

azaroak 5, Asteia 19:30
HARDIA
FILMA

noaia

ZURRUMURRUEN TAILERRA ETA FAMILIA EZBERDINEN ARTEKO BAZKARIA AZAROAN

Bizilagun ezezagunarengana hurbiltzeko lehen pausoak

Bizilagun dugun etorkin hori eta bere errealitatea ezagutzeko ekimenak aurkeztu dituzte Andoainen, Udalaren eta SOS Arrazakeria erakundearen eskutik. ‘Zurrumurruek Stop’ tailerra azaroaren

13an egingo da, eta ‘Bizilagunak bazkaria’, berriz, azaroaren 19an. Izen-ematea udaletxeko Atarian edo Ambrosia Olabideko Gizarte Zerbitzuen bulegoan egin behar da.

Andoaingo herritarrak bi ekimen horietan parte hartuz gongoratu zituzten prentsaurrekora hurbildu ziren Udal ordezkariak, ikastetxeetako gurasoen ordezkariak, eragile sozialak eta herritarrak.

Ana Carrere alkateak aurkezpena egin zuen, aniztasunean eta bestearekiko enpatian oinarrituko den gizarte baten aldeko ekimenak direla adierazteko.

ZURRUMURRUAK STOP, TAILERRA AZAROAREN 13AN

Nazioarteko garapenerako egitasmoetan eragile den **Iosu Perales**ek azaldu zuen zer dela eta antolatu den Zurrumurruek stop izeneko ekimena. “Gizartean zurrumurruek zabaltzea errealitatearekin bat egiten ez duten ideia eta informazioak sustatzeko biderik sendoena izango da, ziurrenik. Ideia horiek, bertako jendearengan aurriritziak, bazterkeria eta etorkinarekiko enpatiarik eza eragiten dute”.

Azaroaren 13ko tailerra zertan datzan adierazi zuen segidan: “Tailerrarekin dinamika parte hartzaile eta hezitzailea sortzen da, emigrazioaren gainean eduki ditzakegun iritziak auzitan jartzeko aproposa. Ha-



Aurkezpena Udal ordezkariak, ikastetxeetako gurasoen ordezkariak, eragile sozialak eta herritarrak hurbildu ziren.

la nola, gure artera etortze hutsagatik abantailak edukitzen dituztela etxebizitzak eskuratzeko, gizarte laguntzak lortzeko... Eraiki diren ideia oker horiek hausteko, errealitatea zein den erakusten da tailerrean, eta datu ofizialak, estadistikak, argitalpen ezberdinak erabiltzen dira. Datu horiekin argi uzten da gezurra dela etorkinaren diren gaizkilerik gehienak edota bertakoek baino laguntza publiko gehiago jasotzen dituztela. Hori guztia ikusita, eta datu horiek eskuetan, hausnarketari ekiten zaio”.

Eraiki diren ideia oker horiek hausteko datu ofizialak, estadistikak eta argitalpen ezberdinak erabiltzen dira Zurrumurruek tailerrean

Abiatzea bat izatea nahiko lukete. “Tailerreko parte hartzaileak gustura aritu badira, bigarren tailer bat egiteko asmoa dago, eta horrekin batera polita izango litzateke lan talde iraunkorra sortzea, ekimen berriak abian jartzeko gogoz”.

Tailerra datorren azaroaren 13an arratsaldeko 18:30ean hasiko da, Urigain Kultur Etxean. Tailerra SOS Arrazakeriako kide **Agustin Unzurrunzagak** gidatuko du.

BIZILAGUNAK BAZKARIA AZAROAREN 19AN

Bertako familia atzeretik etortako familiarekin bazkari batean biltzen dituen egitasmoa da Bizilagunak izeneko ekimena. Bi familiarekin dinamizatzaile bat biltzen da, harremanak erraztu ahal izateko; kontuan hartzen ditu familia

*“Saharako familia batekin egin genuen bazkaria, eta oso egun polita izan zen guretzat, oso aberatsa”
Maixabel Soler*

bakoitzaren hizkuntza, kultura, ohiturak...

Bizilagunak egitasmoa Sos Arrazakeria elkarteak jarri zuen abian 2012an. Euskal Herriko milaka familiek bizi izan dute esperientzia hori. Iaz, **Maixabel Soler** eta bere familia izan ziren horietako bat. Solerrek adierazi zuenez, edonori aholkatzen dion bizi-pena da: “Saharako familia batekin egin genuen bazkaria, eta oso egun polita izan zen guretzat, oso aberatsa. Haien etxera joan ginen, eta euren herriko jantziekin harrera egin ziguten. Bazkaria ere oso goxoa prestatu ziguten, beren gastronomia nagusi izanda. Maiz, badaukagu interesa kanpotik etorri den bizilagun horrekin egoteko, nondik etorri den jakiteko, zeintzuk diren bere ametsak..., baina ez dakigu nola eman lehenengo pausoa, eta Bizilagunak egitasmoa egokia izan liteke ezintasun hori hausteko”.

TOKIKOM SARIAK

Tokikom sarien bigarren edizio sari banaketa egin zuten joan zen ostiralean Usurbilgo Sutegi auditorioan. Euskarazko komunikazioaren arloko 70 lagun inguru batu ziren ekitaldira, hainbat erakundetako ordezkariarekin batera. Ekitaldiko babesleen artean Betterri-Buruntzako Udalak nabarmendu behar dira. **Jone Guenetxea** Tokikomeko presidentea eman zion hasiera jardunaldiari. Segidan, **Xabier Arregi** Usurbilgo alkateak Betterri-Buruntzako udalen izenean hitza hartu zuen. Eta haren

atzetik **Mikel Irizar** Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendaria eta **Esti Alkorta Eusko** Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordea.

SARITUTAKO LANAK

Iragarkirik onena

• Erronkariko Gazta (Labrit multimedia).

Azalik onena

• Hiruka (Uribe-Kosta), Itsasadarrean, bizirauten.

Edukirik onena

• Anboto (Durangaldea), Martxoak 31.

Ikus-entzunezko onena

• Baleike.eus (Zumaia), “Tapa-Pala II”.

Aipamen bereziak:

- Hiruka (Uribe-Kosta), Udaleko ale berezia.
- Puntua (Debagoiena). Genero berdintasunarekiko konpromisoa.

BI SOLASALDI

Sari banaketaz gain, bi solasaldi izan ziren Sutegin. **Xabier Jimenez** Only Media Webeko arduradunak publizitate eta marketing digitalaren inguruan hitz egin zuen.



Flandriako Het Belang Van Limburg orainkariaren koordinatzaile **Filip Vranckx** bigarren hizlariak euren hedabideak

mundu digitalerako egin duen eraldaketaren berri eman zuen.

Bideoak: Tokikom.eus

UDAL POLITIKAGINTZA

Hiru aztergai nagusi urriko udal batzaraldian

Urriko osoko batzaraldian hiru aztergai nabarmendu ziren: San Joan Bataiatzailea adineko egoitza Kabia sarean sartzeko egitasmoa, errepideek sortzen duten zarata eta Gipuzkoako Foru Aldun-

diak bus zerbitzu publikoa eraldatzeko aurkeztu duen aurre egitasmoa.

Batzaraldiaren bideoa: Andoain.eus

ADINEKOEN EGOITZA

Andoaingo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmena sinatzea adostu zuten, aho batez. 2018ko urtarriletik aurrera, hortaz, Foru Aldundiak kudeatuko du egoitza Kabia organismo autonomoaren eskutik. Alderdi guztiek oso garrantzitsutzat jo zuten hartutako erabakia. Hitzarmenaren arabera, Udalak Foru Aldundiari doan lagatzen dizkio egoitza eta bere baitan dauden departamentuak. Hainbat baldintza bete behar dira horretarako: besteak beste, bertako langileek lan baldintzatan ez dezatela okerrera egin, egoitzak jarduera berbera eskaintzen jarraitzea, eta egungo lan poltsa errespetatzea.

Gipuzkoako herrietan adinekoen Udal egoitzetan gertatzen ari den eskualdaketa prozesu orokorraren baitan kokatu behar da erabakia.

TAXIEN TARIFA

Tarifa berriak onartu ziren aho batez, Buruntzaldeko taxien elkarrekin proposatuta. Igoera %1,6koa izango da.

ERREPIDEEEN ZARATA

N1 eta A15 errepideetako trafikoa eragiten duen zarata gutxitzea helburu, EH Bilduk mozioa aurkeztu zuen, Foru Aldundiari zera eskatuz: Andoaingo herritarrek, eta bereziki Sorabilla, Txistoki, Mimiendi-Bazkardo eta Buruntzako bizilagunek sufritzen duten kutsadura akustikoa murrizteko pantaila akustikoak jartzea, eta horretarako Aldundiak 2018ko aurrekontuetan diru partida gorde dezala.

EAJ-PNVk hiru puntuko mozio alternatiboa aurkeztu zuen. Lehenik, Andoaingo Udalarri eskatzen zaio argitu dezala Gipuzkoako zarata mapari alegaziorik aurkeztu ote dion ala ez; bigarrenik, Udalak Aldundiari bidera diezaio la udalerrian egon daitezkeen zarata gune kritikoen zerren-



Joan zen osteguneko udal batzaraldiko irudia. Pleno osoa bideoan ikusgai dago, andoain.eus webgunean.

da; eta hirugarrenik, Aldundiak azter ditzala aipatu zarata gune kritiko horien ezaugarri guztiak, eta beharrezko ikusiz gero, pantaila akustikoak zein beste elementu gehiago jar ditzala.

Mozioak bozkatu aurretik Jon Zulueta (EH Bildu) eta Imanol Goenaga (EAJ) zinegotzien arteko debatea izan zen. Goenagak, besteak beste, harridura agertu zuen Udalak ez diolako alegaziorik aurkeztu Aldundiak egin berri duen zarata mapari. Zuluetak erantzun zion Udala mapa horrekin erabat ados dagoela, eta ekintza plana zehazten den egunean, erabakiko dutela alegazioak jarri ala ez.

Funtsean, esan daiteke udal alderdi guztiak bat datozela oinarritzkoan: alegia, Andoaingo hainbat eremutako bizilagunak kutsadura akustikoa jasaten ari direla. Urrutira joan gabe, Aldundiak 2017an egingandako zarata mapak dioenez, Andoain eta Tolosa kutsadura gehien jasaten duten herrien artean daude. Bizilagunak aspaldi hasi ziren neurriak eskatzen eta horren adierazgarri dira Foru Aldundiak Goikoplazan jarritako karpan zein Andoaingo Udalak auzoz auzoko kanpainan jasotako eska-

erak. Gipuzkoan, herri gutxi dira errepideek eragiten duten zarataren aurkako neurririk gabe. N1ean, zehazki Beasainen, panelak jarri dituzte azken egunetan.

EH Bilduren mozioak egin zuen aurrera; EAJ-PNVren kontrako lau boto jaso zituen, eta gainerako hamalau aldekoa (EH Bildu, PSE-EE, Irabazi, Ganemos eta atxikitu gabekoa). Gauzak horrela, EAJ-PNVren mozio alternatiboa ez zen bozkatu beharrik izan.

AUTOBUS ZERBITZUA EGOKITZEKO AURRE EGITASMOA

Oraingoan ere bi mozio jarri ziren mahai gainean, eztabaidarako. Buruntzaldean hautsak harrotu ditu Mugikortasunerako eta Antolamendurako Foru Diputatuak foru dekretu bidez onartu duen aurreproiektuak.

EH Bilduk aurkeztu zuen lehenbiziko mozioan Aldundiari eskatzen dio bertan behera utz dezala 'Tolosa, N1, Buruntzaldea eta Donostiako loturak' izeneko garraio zerbitzuaren esleipena, eta bide batez, esleipen prozesu berria ireki dezala sindikatuak, erabiltzaileak eta Udalak kontutan hartuz.

PSE-EE alderdiaren eskutik

heldu zen mozio alternatiboa. Honek Tolosa, Donostia eta Buruntzaldearekin lotuko duen zerbitzu publikoa bermatzea eskatzen dio Aldundiari, herritarren mugikortasun erreala kontutan har dezan. Herritarrek aurkeztu dituzten alegazioak aintzat hartzea eskatzen da mozio berean.

Aztergaiak eztabaida beroa eragin zuen. Aldundiak herritarren mugikortasun jasangarriaren gainetik ikuspuntu ekonomizista lehenetsi duela salatu zuen Jon Zuluetak (EH Bildu). Datuei erreparatuta, aurreko legegintzalditik hona igo egin da bus zerbitzu publikoaren erabilera. Zuluetak erabera, aurreproiektuak atzerapausoak eragingo ditu erabileran. Autobusek egin ohi dituzten 3.700.000 kilometroetatik, ia erdira jaitsiko direla ohartarazi zuen.

EAJ-PNVren izenean, Marijose Izagirrek gogorarazi zuen aurreko legegintzaldian Diputazioak inongo irizpiderik gabe handitu zituela zerbitzu publikoa, eta ondorioz, egun, horietako batzuk kontsolidatu egin diren bezala, beste batzuk gairidimentsionatuta daudela. Oraingo aurreproiektuari ere irizpide garbi baten falta sumatzen diola erantsi zuen

Funtsean alderdi guztiak bat datoz oinarritzkoan: Alegia, Andoaingo hainbat eremuetako bizilagunak kutsadura akustikoa jasaten ari direla

Izagirrek. Jeltzaleen usteen egungo aurreproiektua bus lineen maiztasuna murriztera dator, zerbitzuaren kalitatearen kalterako.

Ganemoseko Olga Hernandezek eta Irabaziko Jorge Mourinhok ere, batik bat, Aldundiaren aurreproiektua murrizketarekin identifikatu zuten. Kontraesankortzat jo zuten Andoain Gipuzkoan autoa gehien erabiltzen duen eskualdean txertatuta egotea eta, bestalde, zerbitzu publikoko eskaintza gutxitu nahi izatea.

Maider Lainezek aitortu zuenez, Andoaingo PSE-EEK ez du bat egin aurreproiektuarekin, nahiz eta Aldundian ardura duena alderdi sozialista izan. Nolanahi ere, ez zuten begi onez ikusi aurreproiektua bertan behera uzteko eskaera. Euren ustean, hobe da alegazio zehatzak jartzea. Gainera, balioan jartzeko elementuak ikusten dizkio aurreproiektuari: besteak beste, gauez Andoain-Donostia eta Andoain-Hernani-Astigarraga lineak jartzea. Azken hori sagardotegien boladan. Hobekuntzen arloan tren zerbitzua aipatu zuen; hain zuzen, Lainezek iragarri zuenez, Aldundiko mugikortasun saila Renferekin negoziatzen ari da tren zerbitzua ere Mugi tarifa sistemara batu ahal izateko.

Udabaltzan EH Bilduren mozioa atera zuen aurrera. EH Bilduko, EAJ-PNVko, Ganemoseko, Irabaziko eta atxikitu gabeko zinegotziek aldeko botoa eman zuten; PSE-EEkoek aurka. Azken alderdi horren mozio alternatiboa ez zen bozkatu behar izan, beraz.

HERRI GALDEKETA ANDOAINEN

Andoain Esan ekimenaren eskutik, herri galdeketa igandean

Urte hasiera aldera, Andoain Esan ekimena sortu zen Andoainen bertan herri galdeketa antolatzeko. Hilabete guztiotako lana datoren igandera begira egon da, andoaindarrei “Nahi al duzu euskal es-

tatu burujabe bateko herritarra izan?” galderari erantzuteko aukera eskaintzeko. Getxo, Galdakao, Leioa eta Bizkaiko herri gehiagotan ere herri kontsulta gehiago antolatuko dituzte igandean.



Dozenaka lagun bildu zen larunbat eguerdian, Goikoplazan hasi eta Zumea plazan amaitu zen ekitaldian.

Kataluniako egoera puri-purian dela burutu da Andoainen herri galdeketa aldeko kanpaina. Mundu mailan zeresan handia piztu zuen Kataluniako erreferenduma urriaren 1ean izan zen, **Andoain Esan** ekimenak azaroaren 5eko herri galdeketa galdara aurkeztu zuen egunean bertan. Gertaera ugari izan da hilabete eskasean, eguna joan eta eguna etorri albistegietako lerroburretan egonik.

Albistearen harian, asko eta asko izan dira hango egoera interes biziz jarraitzen aritu direnak. Okertuz joan ziren gertakariak, **Gure Esku Dagok** kezka bizi izan dituenak, baliokidetzat har daitezkeen Omnium edota ANC herri mugimenduetako bozeramaileak kartzelan sartu baitituzte. Aurreko astean bertan oharra argitaratu zuten, Espainiako gobernuaren jokabidea kritikatu: “Espainiako Go-

bernuak Kataluniako errealitatea ukatzen jarraitzen du. Kataluniako gizartearen gehiengoak planteatzen duen auzi politikoa –etorkizunaren jabe izan nahi izatea– elkarrizketaren bidez bideratu beharrean, auzia ukatu eta demokraziaren kontrako neurriekin erantzun du, marka guztiak hautsiz”. Larunbat honi begira, Gure Esku Dagok hainbat alderdi politiko eta sindikatuekin bat egin du

“155.ari ez. Demokrazia eta erabakitze-ko eskubidea” lelopean burutuko den manifestazioa deituz. Azaroaren 4an izango da hori, Andoaingo herri galdeketa bezperan. Kataluniari begia kendu gabe, andoaindarrek igandean goizeko 09:00etatik iluntzeko 20:00ak arte herri kontsultan parte hartzeko aukera izango dute. Baiezko edo ezezko botoa andoaindarren esku dago.



[AIURRI, KOMUNITATEA]

*Galdeketa*ren informazio guztia

aiurri.eus gunean www.aiurri.eus/Komunitatea/andoainesan



HERRI GALDEKETA ANDOAINEN

Herri galdeketaren atarian jakin beharrekoak

Goizeko bederatzietan hasi eta iluntzeko zortzirik arte botoa emateko aukera izango da Andoaingo Zumea plazan, Goikoplazan eta Juanita Alkain pla-

zan. Aurkeztu beharreko agiritegiari erreparatzeko oharra luzatu dute antolatzaileek, botoa eman ahal izateko bertan erroldatuta egon behar baita.

ZER

‘Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?’, horixe da andoaindarrek botoaren bitartez erabakiko dutena. Galdera bilera irekian adostu zen, joan zen irailaren 23an egindako batzaraldian.

NOIZ

Azaroaren 5ean, igande honetan, Andoaingo hiru bozkalekuetan goizeko 09:00etatik 20:00etara jarraian. Botumaileak erabakiko du zein tokitan botoa eman.

Igandean kanpoan dagoenak aurreko egunetan botoa emateko aukera dauka. Azken egunak: Azaroaren 2an (17:00-20:00), azaroaren 3an (11:00-13:00) eta azaroaren 4an (11:00-13:00).

NON

Goikoplazan, Juanita Alkain plazan eta Zumea plazan.

NORK

Azaroaren 5ean 16 urte edo gehiago dituen herrikide guztiek botoa emateko eskubidea dute. Beti ere, botoa eman ahal izateko, pertsona horrek Andoain erroldatua egon behar du.

NOLA

Botoa eman nahi duenak agiri ofiziala erakutsi behar du: Nortasun Agiria (NAN), pasaporte, gidatzeko baimena, EHNA + Errolda agiria. Aurkezturiko identifikazio-agiriak helbiderik ez badu edo beste herri batekoa badu, errolda agiria aurkeztea behar beharrezkoa izango da. Errolda agiria Udaletxean eskuratzen da, dohainik.

ZERGATIK

“Inoiz ez delako galdetu zein komunitateko kide izan nahi dugun, eta andoaindar guztioi dagokigun eskubidea delako erabakitzea”, diote sustatzaileek.



Martxoaren 19an Buruntzaldeko eta Tolosaldeko hainbat herritan galdeketak egin zituzten.

DATA SEINALATUA

Azaroaren 5ean egiteko aukera kontzientea izan da. Getxoko Gure Esku Dago taldeak eman zuen ideia: “1931n Euskal Herrian emakumeak hautagai izan zitezkeen, baina ez hautesle. 1933ko azaroaren 5ean, emakumeek boto eskubidea izan zuten lehen aldiz Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, estatutua bozkatzeko erreferendumean. Horregatik proposatu genuen Getxon azaroaren 5a kontsulta egiteko, eskubide zibil eta politikoen defentsa egin duten emakumeak ere gozoan”.

13 HERRIALDE IGANDEAN

Azaroaren 5ean Hego Euskal Herriko hamahiru herrialde gehiago batuko dira

herri kontsulta egina duten zerrendara. Horietatik bi gipuzkoarrak dira: Andoain, Areatza, Atxondo, Beizama, Berango, Erandio, Elantxobe, Galdakao, Getxo, Mundaka, Ibarrangelu, Leioa eta Otxandio.

165 HERRIALDE DENERA

Azken urteotan herri kontsultak egin dituzten herrialdeak dira. Gure Esku Dago erakundearen datuen arabera, kontsulta horietan guztietan 155.000 herritarrek hartu dute parte.

HIRIBURUAK JOMUGAN

2018rako erronka Hego Euskal Herriko hiriburuetan herri kontsultak antolatzea da. Dagoeneko batzordeak osatzen ari dira.

ADIERAZPEN BATERATUA

Azaroaren 1ean Galdakaon azaroaren 5ean galdeketak antolatu dituzten herritarrek adierazpen bateratua egin zuten: “Kataluniara begira gaude baina Euskal Herrian geldialdirik gabe lanean jarraitzen dugu erabakitzeko eskubidearen alde. Gurean ere etorkizun politikoak erabaki egin nahi baitugu. Eta zalantzarik ez daukagu erabakiaren bidea, erabakiz ikasiko dugula. Erabakiz egingo dugula.

Galdeketen tsunami bat iragarri zuen Gure Esku Dago joan den urteko ekainaren 5ean, eta jada 167 herri hartu ditu olatuak. 154.500 herritarrek hartu dute parte azken urteotan Euskal Herrian egin diren herri galdeketetan. Eta zain daude beste mila-ka. Euskal herritarren erabakitzeko borondateari bide emateko lehen pausoak ematen ari gara herriz herri, egunetik egunera hazten ari den herri mugimendu zabal baten eskutik.

Bizkaiko eta Gipuzkoako hamahiru herritako kideak batu gara gaur. Helburu batek elkartu gaitu: hautetsontziak kalera atera eta herritarren esku jartzea. Ez gara hutsetik abiatzen. Bide luzea egin dugu. Hain zuzen, bidea bera jada garaipena da guretzat. Herritarren nahia eta borondatea azaleratzea, prozesu parte hartzaileen bidez, herritarrek protagonista sentitzea, etorkizuna gure esku dagoela irudikatzea. Elkarrekin. Ezin baita erabakirik gauzatu ezberdinen arteko elkarlanik gabe.

Elkarlanaren eta adostasunaren bidetik izango da, ala ez da erabakirik izango.

Horregatik diogu, zailena ez dela erabakitzea, boto bat hartu eta kutxa baten sartzea, bere soiltasunean. Zaila, galdera pausatzea da, zaila prozesu osoa adostea da, zaila hautetsontziak kalean jartzea da. Hori da adostasuna eskatzen duena, elkarlana eskatzen duena, areriotzat hartu dugun hori herrikidea dela gogoraraztea eragiten diguna.

Igandean aukera bat daukagu herritarren eskubide zibilen alde egiteko, praktikaren bidez. Horregatik, gure auzokideei dei egiten diegu, boto papeira eskuan, demokraziaren ariketa honetara etor daitezten. Parte hartzeak egiten gaitu herri, boto eskubideak herritarrek maila berean kokatzen gaitu eta, gure botoarekin, edozein dela ere, herritarren, herritarren aldeko urrats handi bat egiteko aukera izango dugu igandean. Herri bezala, kolektibo gisa, aurrerapausu bat ematera goaz.

Erabakia gu gara. Herritarrok gara. Herritar ahaldunduak gara. Eta sentitzen hasiak gara etorkizuna gure eskuetan dagoela. Herritarrok gure geroaren protagonistak izan nahi dugu, ez ikusle soilak. Etorkizun hobea bat erabakitzeko gure ekarpena ezinbestekoa da. Hori da XXI. mendeko demokraziak eskatzen duen erronka eta Euskal Herriak bere burua hor kokatu nahi du. Eta egunetik egunera bide horretan aurrera egiteko herritarrek beharrezkoak diren jarrerak eta gaitasunak bereganatzen eta barneratzen ari gara. Ez dezagun ahaztu, azaroaren 5ean gure herrietan emango dugun pausoa Euskal Herri osoan eman dezagun ari garela lanean. Euskal Herrian ere erabaki egin nahi dugu.

Gure esku dagoen guztia egingo dugu erabakia gauza dadin. Eta erabakiko dugu. Bidean aurrera goaz. Eta atzera bueltarik ez da. Aurrera Euskal Herria”.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia

HERRI GALDEKETA ANDOAINEN

Kalejira eta giza-katea hiru bozkalekuetan zehar

Joan zen larunbatean dozenaka herritar erabakitze eskubidearen alde kalera irten zen, Andoain Esan ekimenak egindako deialdiari erantzunez. Trikitilarien doinupean abiatu ziren Goikoplazatik

Juanita Alkain plazara. Ekitaldiko bigarren zatia bertan hasi zen, erraldoi eta buruhandien atzean eskuz esku abiatu baitziren Zumea plazaraino.

Giza-katea azaroaren 5eko herri galdeketa azken txanpan sartzeko iragarpena izan zen, herrikideak mobilizatzeko aldera antolatutako ekitaldi publiko sortako lehena. **Andoain Esan** ekimenak, larunbat eguerdian, adin guztietako eta izaera ezberdineko herrikideak erakartzea lortu zuen. Ibilbidean Goikoplaza, Juanita Alkain plaza eta Zumea plaza zeharkatu zituzten. Sinbolikoki, gainera, herri kontsultan ipiniko dituzten bozkatzeko hiru erremuetatik igaro ziren. Jai giroan burutu zen, Erraldoi eta buruhandien konpartsaren parte hartzearekin. Giza-katea Kale Nagusia eta Zumea plazan geldirik egon zen minutuetan partaideak besoak altxata edota sigi-saga aurrera eta atzera ibili ziren.



Andoain Esan ekimenak adin guztietako eta izaera ezberdineko herrikideak erakartzea lortu zuen, joan zen larunbatean.

Jendetza eskuak lotuta ikustean, kalean gora eta behera oinez zihozten gainerako he-

rrikideak ohartarazteko ekimena bilakatu zen, asko eta asko hurbiltzen baitzitzaizkien

egiten ari zirenez galdezka. Zumea plazara iritsita, jendetza batu eta, Andoain Esan

Ibilbidean Goikoplaza, Juanita Alkain plaza eta Zumea plaza zeharkatu zituzten. Sinbolikoki, herri kontsultan ipiniko dituzten bozkatzeko hiru erremuetatik igaro ziren

ekimeneko eskuorriak eskuan zituztela, seigarren solairuan zegoen argazkilaritari begira jarri ziren, taldeko argazkia ateratzeko. Txalo artean amaitu zen giza-katea. Ordurako talogileak talo goxoa eskaintzeko prest ziren. Ilara luzeak egin ziren eskaera guztiari erantzun ahal izateko.

Boluntario eta laguntzaile askoren lanari esker bikain irten zen urriaren 28ko kalejira eta giza-katea.



Trikitilarien doinupean abiatu zen kalejira, larunbat eguerdian.



Partaideek Zumea kalea eta Kale Nagusia elkar lotu zituzten.



Erraldoi eta buruhandiei esker ekimena jai giroan igaro zen.



Adin ezberdinetako herrikideak elkartu ziren giza-katean.



Giza-katea amaitzerako talogileak prest ziren.



Joera politiko ezberdinetako ordezkariak hurbildu ziren giza-katera.

HERRI GALDEKETA ANDOAINEN

Erabakitze eskubideaz Bastero kulturgunean

Bastero kulturgunean erabakitze eskubideari buruzko hausnarketa ezberdinak entzun dira, astean zehar antolaturiko ekitaldi ezberdinetan. Astelehenean Ju-

len Telleria telebista aurkezleak Tolosaldeko esperientziaren berri eman zuen, eta asteartean Anjel Oiarbidek erabakitze eskubideaz jardun zuen.



Ander Guerrero, Julen Telleria eta Janire Huitzi asteleheneko solasaldian.



Anjel Oiarbidek hitzaldia eskaini zuen Basteron, astearte iluntzean.

Atsegin eta gertuko agertu zen **Julen Telleria** gazteentzat antolaturiko ekitaldian. Argi eta zuzen hitz egin zuen, beti ere Tolosaldean bizi izandako esperientziak abiatuta. Aholkua eman zien bertan zirenei, herri galdeketa azken egunetarako erabilgarri izango zelakoan: Sare sozial ezberdinetan, igandeari begira, tamainan aritzea.

Lagunak eta gertukoak nekatu gabe. **Ander Guerrero** eta **Janire Huitzi** gidatutako solasaldian, Gure Esku Dago mugimenduaz edota Kataluniako prozesuaz hausnarketa egin zuen. Azken honi buruz, pasioz jarraitzen ari dela adierazi zuen. Oro har, hauteskundeetan botoa ematearen garrantziaz hitz egin zuen.

Astearte iluntzean Gure Esku Dago bozeramaile **Anjel Oiarbide**ren txanda iritsi zen. Herritarrek boteretzearen garrantziaz hitz egin zuen, urteotako ibilbideari begira jarri eta metatzen ari diren indarra nabarmentzearekin batera. Ezberdinen arteko elkarrizketa eta elkarbizitza lantzeko tresna gisa ikusi zuen berak ordezkari-

tzen duen mugimendua, eta 2018rako euskal hiriburuetan antzeko kontsultak egingo dituztela iragarri zuen.

MAHAI-INGURUA OSTEGUNEAN
Ostegun iluntzean, Tolosaldeko prozesuan parte hartze aktiboa izan zuten **Oihana Iguaranek**, **Kike Amonarrizek** eta **Beñat Sarasolak** parte hartuko dute.

Hautetsontzietan hitzordua, Andoainen

Iritzia

Iosu Perales

Andoaingo Gure Esku Dago ekimenak, "Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritar izan?" galderari erantzuteko herri galdeketa antolatu du. Azaroaren 5ean izango da eta 16 urtetik gorako herritar guztiei egin diete bertan parte hartzeko deia.

Erabakitze eskubideari lotutako ekimen hau, beste hamai-ka udalherri euskaldunetan burutu da dagoeneko. Bakoitzak modu aske eta sekretuan ematen du bere bozka eta amaierako zenbaketa gardena izaten da. Guztion alde antolatutako ekintza da, herritar guztiei demokratia ariketa batean parte hartzeko hitza ematen duena.

Erabakitze eskubidea gi-

zarte aske baten oinarrian dago; denbora tarte jakinetan herritarren parte hartze puntuala baino, euren bizitzatan eragiten duten erabakien inguruan esku hartzeko aukera eskaini beharko luke demokrasiak. Bakoitzak benetan pentsatzen den hori esateko hartu beharko luke parte galdeketa, botoaren zentzua dena dela ere. Erabakitze eskubidea ez da herritarren borondatea ezagutzeko modua besterik. Ondorioz, eta amaiera inon idatzita ez dagoenez, taldeko borondate demokratikoak marraztuko du zer nolako gizarte eta herrialde nahi dugun.

Erabakitze eskubidea lurraldeko antolakuntza politikoari soilik lotzen zaion garaia bizi dugu, baina ona litzateke gai sozioekonomiko eta komu-

"Demokrazia, bizitzako maila guztietan modu parte hartzaile eta aktiboan landu behar da"

nitateko bizimoduari eragiten dioten alorreire ere begirik ez kentzea. Demokrazia, bizitzako maila guztietan modu parte hartzaile eta aktiboan landu behar da.

Herri gisa gure etorkizunari dagokionez, erabakitze eskubidea herritarren borondate demokratikoan oinarritzen da eta bakarka edo taldean, kanpo eraginik gabe, adierazteko eskubidea dute herritarrek. Eskubide hori zehaztu eta, guztien artean, aurrera eramateko modua adosten saiatu beharko litzateke, baina ez esku-

Zuk duzu hitza

Iritzia

Mikel Arregi, Garazi Jauregi eta Ainara Loyarte

Hamasei urte baino gehiago dituzu eta andoaindarra zara? Azaroaren 5ean zuk duzu hitza. Gure Esku Dago galdera bat egingo dizu: "Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?". Galdera horri erantzuna eman, kalera ateratzera animatu nahi zaitugu; zalantzarik gabe, parte hartzea baita guretzat garrantzitsua. Gerturatu Goiko plazara, Juanita Alkain plazara edo Zumea plazara, eta aprobetxatu eman diguten aukera.

Bakoitzak bere ideiak gauzatzeko plaza egokia da azaroaren 5ekoa, elkartasunez, gure eredia zein izango den erabakitze eskubidea baitugu. Iritzi aniztasuna da egun horretan bildu nahi duguna, horrek bermatuko du galdeketa honen baliozotasuna. Abestiak dioen moduan jende zorionsua, herri libre batean, horixe da ikusi nahi duguna, jai giroan, jendea bertara gerturatzeko.

Herri bat gara: gure hizkuntza, kultura eta ohiturak ditugu, eta, guztion ahotan dabilen erabakitze eskubidea gauzatzeko lehenengo pausoa eman dezakegu datorren igandean. Zer izan nahi dugun, hain zuzen ere. Ahotza daukagu. Ekintza demokratikoa da pentsatzen duguna hautetsontzi batean eskuorri bidez adieraztea, bozkatzea, eta guztion artean, lortuko dugu.

Etorkizunera begiratzeko garaia da, ez iraganera. Biharkoa, eta ez atzokoa. Aurrera, eta ez atzera. Askorentzat gauza ezina den erreferendum hori ez da utopia, ez da ametsa, eskuetik helduta egin daitekeen zerbait delakoan gaude. Gaur egungo mundu globalizatu honetan, handitasunaren barruan txikiak gure tokia eduki dezagun. Hobe, ez okerrago. Bakarra.

Beraz, zu, anima zaituzte eta ez utzi erabakia beste esku, zure iritziak asko balio du. Etorkizunera begiratu behar delako eta ez iraganera, azaroaren 5ean, denok bozkatzea!

bidea bera eztabaidatuta, inork ez baitu hura debekatzeko zilegitasunik. Beste herri askok egin bezala, Andoainek ere aniztasunean eta demokratikoki elkarbizitza hobetzeko aukera izango du. Erabakitze modu bat da, mundu garaikidearen osagai izatearekin batera. Munduan ez da inoiz egun bezainbesteko galdeketa egin. 200 bat herrialdetatik 150ek zuzeneko prozedura demokratikoak dituzte. Europa mailan, Espainia eta Frantzia dira debeku gehien ezartzen dituztenak, baina egun legezkoa den guztia aurrez legez kanpoko izan zela ere esan beharra dago. Azaroaren 5ean hautetsontzietan hitzordua dugu. Demokratiazik onenarekin hitzordua: erabakitze eskubidearekin.

Mintzalagunen bertso afaria



Labaka, Muñoa, Beloki eta Goikoetxea bertsolariak kantuan aritu ziren.

Bertso afari entretenigarriaz gozatzeko aukera eduki zuten berrogeita hamar bat lagunek, joan zen ostegunean, Errekaburu elkartearen Bertso-afaria Mintzalagun ekimenak antolatuta zuten, euskara giro atseginean eta lagunartean praktikatzeko aukera emateko helburuarekin. **Ane Labaka, Unai Muñoa, Ion Beloki eta Ander Goikoetxea** bertsolariak kantuan aritu ziren.

Unai Ormaetxea gai-jartzai-learen agindutara, pertsonai ugariren larruan sartu behar izan zuten lau bertsolariak, eta arrazoi politik botatutuzten: Errealeko entrenatzaile eta jokalaria, esnebanatzaile tradizionala eta modernoa, haurri izena jartzeko orduan xextra daukaten gurasoak, Katalunia, whatsapp bidez lotsatzeko moduko argazkia bidali dioten neska gaztea...

Gauean entzun ziren bertsoaldi guztietatik, hona lagin bat: Unai Muñoak eta Ion Belokik bikotea osatzen dute. Haur bat espero dute, eta zein izen jarri ari dira pentsatzen. Horretan, bakoitzak bere ideia dauka; Unai izen oso euskalduna, garaikidea eta super modernoa nahi du, eta Ionek, berriz, tradizionala eta konposatua, eta santuak baldin badauzka tarteko, hobe.

Unai Muñoa:

Ni modernoa izan naiz beti. Beti izan dut klasea ta zuri beti gustatu zaizu atzera begiratzea. Txuria eta beltza gara gu a ze nolako trantzea! Nahiko mirari iruditzen zait gu biak maitemintzea (bis).

Ion Beloki:

Baina haria beste bat degu, eutsi diezaigun gaiari. Erlantz esanda gure umea ezin baita egon hadi! Imajinatu gure umea baldin bada bertsolari askoz hobeto ibiliko da izena badu Joxe Mari (bis).

Unai Muñoa:

Bizitzan zehar gertatzen dira mila traba mila trote. Izenarekin arduratuta biak gaude tope-tope ta Joxe Mari behar lukeela hori, Ion, egia ote? Ikastolara joaten denean barre egingo diote (bis).

Ion Beloki:

Baina izenak beti izango du bere begitan ditzira ta zeozerekin oroituko dira etorkizunen sikira. Izen horixe errexago degu eta ikasten da di-da Hodei izena jarri ezkeru beti zerura begira.

Unai Muñoa:

Beti zerua, beti santuak, meritua dezu zuk e. Egaña kenduta Uztapide bela jarriko zenduke. Trikitixa ta txalapartari ere zenbat buruhauste. Maitea, jaijo behar zenuen duela berrehun bat urte (bis).

Ion Beloki:

Nik enbidoa botatzen dizut, zuk atzetikan hordago. Adostasunik ez degu lortzen, hori gelditu da klaro. Tradizionala ni izango naiz, jarraituko det luzaro. Nahio Uztapide bera aditzea Muñoa baino lehenago (bis).

Unai Muñoa:

Beti nerekin saltsan zabilta, beti hainbeste disputa. Eta nik beti bukatu ohi det depresioak hartuta. Berdin du Patxi o Joxe Mari o Maria de Kalkuta. Zuk nahi dezuna egin ezazu beti hala egin dezu ta (bis).

Ion Beloki:

Baina hala ere eskua orain zuri behar dizut luzatu. Erabakia hartu aurretik behar degu aklaratu. Iritzi ezberdin ditugu eta orain behar degu bukatu. Hobe degu, bai, Antton jarrita gehiago izena ez aldatu (bis).

Bertso gehiago: Aiurri.eus

Elkarrizketa Udal Liburutegiaren 55. urteurrenean

Liburutegiaren ibilbidea Kontxi Camposen eskutik

Andoaingo liburutegiak hiru kokagune ezagutu ditu 1962an ireki zenetik. Eskola Kalea, Uri-gain kultur etxea eta egungo Ondarreta kalea. **Kontxi Campos** da hiruretan lan egin duen liburuzain bakarra, 23 urtetan (1981-2004).

Nola hasi zinen liburuzain bezala?

K.C.: Galardi haurtzaindegian ordezkapenak egiten nituen, eta behin, 1982an, udaletik proposatu zidaten liburutegian hasteko, hiru-lau orduz arratsaldeetan. 1962an **Agustin Olasagasti** hasi zen liburuzain bezala, baina gero **Trifino Labargak** jarraitu zuen. Bada, Trifino Ondarretako irakaslea ere bazen, eta nonbait, liburutegia uztea erabaki zuen nekeak eraginda. Halaxe hasi nintzen. Goizetan, liburuzaintzako ikastaro mordoa egin behar izan nuen bolada batean.

Hamabost mila biztanleko herri batean, liburuzain bakarra izan zinen urtetan...

K.C.: Bai. Baina garai batean liburutegiak ez zuen orain eduki dezakeen erabiltzaile kopurua. Gainera, tarteka laguntzaileak eduki nituen ondoan: **Yolanda Garcia, Joan Andres Marin, Maria Jesus Gurrutxaga, Ainhoa Alfage-me...** Gainera, **Gotzon Garmendia** eta **Ibon Lekuona** liburu zaleak ere etorri izan ziren bolada batean laguntzera, beren kabuz.

Liburuak ez ziren orain adina argitaratuko...

K.C.: Ez hainbeste. Egin kontu, Eskola kaleko liburutegian hasi nintzenean, esate batera euskaraz oso gutxi zegoela, Gereño eta Garateren nobela poliziakoak eta zerbaite gehiago. Orduan txere ari zen hazten euskarazko liburuaren produkzioa, eta lan handia egin behar izan zen eguneratzeko liburutegia.

Istiluak bizi izan zenituen liburutegi barruan.

K.C.: Bai. Iraganean liburutegian formal egoteko heziketa falta zen, eta askotan, lagun giroan egotera etortzen ziren gazte batzuek, zalaparta sortuz. Zintzo egoteko agindu eta alferrik zenean, kalera bidaltzea edo udaltzainei deitzea egokitzen zitzaidan. Ikastetxei zabalitzen genien proposamena, irakasleak ikasleekin etorri eta ikusi zezaaten zer den liburutegia, baina ez ziguten kasu askorik egiten, egia



Kontxi Campos 1981 eta 2004 urteen artean liburuzain aritu zen lanean.

“Erretiroa hartu nuenetik bizi-kalitatea aberastu egin zaidan arren, faltan botatzen dut liburutegiko tratu pertsonal hura”

“Gauzak nabarmen aldatu dira, onerako. Zabalduta dago liburutegiarekiko kontzientzia, arauen errespetuei dagokionez”

esan. Iruditzen zait gauzak nabarmen aldatu direla, onerako. Herrian zabalduta dago liburutegiarekiko kontzientzia, arauen errespetuei dagokionez behintzat.

Irakur zaleak izan dira Andoaingo herriarrak?

K.C.: Beti ezagutu nuen milaka bazkidez osatutako liburutegia. Baina hori gauza bat da eta beste benetako erabiltzaile kopurua. Esango nuke ia betiko jendea azaltzen zela. Alde horretatik, andoaindarren irakurzaletasun maila liburutegiak zeukan mugimenduekin neurtu behar balitz, emaitza nahiko etsigarria litzateke.

Liburuak mailegatzearen lan mekanikoaz gain, liburuzainak tratua eduki ohi du jendearekin...

K.C.: Jakina, batetik, interneta ez zegoen garaian ikastetxetako ikasleak laguntza eske etortzen ziren honetaz edo hartaz lan bat egitera, eta horiek bideratu behar izaten ziren. Bestalde, jende heldua hurbiltzen zen aholku bila, batez ere nobela erromantiko, poliziako edo historikoren bat nahi zutela-eta.

Hiru alabeko familia neukan aurrera atera beharra, eta egia esan, ez nuen denbora sobera irakurtzeko; nolabehere, ahaleginak egiten nituen jakiteko zeintzuk ziren liburu gomendagarriak. Horrela, erabiltzaile batzuek liburuak irakurri ostean emandako iritziak jaso eta beste jakinarazten nien; iritziak trafikatzeko ibiltzen nintzen.

Izugarririk gozaten nuen erabiltzaileekin sortzen zen konfiantza horrekin. Erretiroa hartu nuenetik bizi-kalitatea aberastu egin zaidan arren, faltan botatzen dut liburutegiko tratu pertsonal hura.

Nahiko onartuta dago Andoaingo liburutegiaren egoitza berri baten premia daukala...

K.C.: Lehen ere ikusten zen herriak liburutegi handiago eta duina merezi zuela, eta zer esanik ez gaur egun, dauzkan erabiltzaile guztiekin. Hala ere, nik ez dakit zenbaiteraino baloratzen den liburutegi eskaintzen duen zerbitzua; herrian proiektu ugari bultzatu izan dira liburutegi berri batek baino premia handiagoa zutela pentsatuz...



KIROL ALBISTEAK

Euskalduna Mendigoizale elkartearen eskutik

Mendi Astea Andoainen azaroaren 13tik 19ra

Azaroak 13tik 19ra mendizaleek zer ikusi eta entzun izango dute Andoainen, Euskalduna Mendigoizale elkartearen eskutik. Iraola herrikidearen eta Urbistondo urnietarraren ikusentzunezkoak ikusteaz gain, kirol mailan aski ezagun diren Inurrategi eta Karrera entzuteko aukera ere izango dute.

Emanaldi guztiak Euskalduna Mendigoizale taldearen egoitzan izango dira, Kale Nagusiko 31n.

Azaroak 13, astelehena

20:00 Euskalduna: "Peru, Irutik bat", Jon Iraolaren eskutik.

Azaroak 14, asteartea

20:00 Euskalduna: "Bistare bistare", Andoni Urbistondo eta Joseba Oartzabalaren eskutik.

Azaroak 15, asteazkena

20:00 Euskalduna: Elkarteko lehendakaria hautatzeko bazkideen urteko batzar orokorra.

Azaroak 16, osteguna

20:00 Euskalduna: "Porrotaren alde", Alberto Inurrategiren eskutik.

Azaroak 17, ostirala

20:00 Euskalduna: Iker Karreraren emanaldia.

Azaroak 19, igandea

Mendi ibilaldia: Mandubia, Kizkitza, Atxurtzaga, Santa Marina, Ezkio, Santa Luzia, Anduaga, San Lorenzo, Itsaso, Mandubia. Ondoren babarrun jatea. Bazkaria eta busa: 40 euro.

Mendi bizikleta irteera eta mendi martxa, hilabete honetan

Zanpatuz elkartearen bi hitzordu azarorako

Lehen azaroaren 18an izango da, azken bi urtetan ere antolatuta dena: mendi bizikleta irteera. Ibilbidea **Mikel Bergarak** eta **Manex Altunak** erabakiko dute. Ez da izenik eman behar, nahikoa da herriko plazara azaltzearekin. Ibilbidea eta xehetasun guztiak agerkari honetan jakinaraziko dira azaroaren 9ko alean.

Azaroko azken asteburuan etorriko da herritik kanpo egingo den azken irteera: Udalatx mendia (1.092 m.). **Maxi Mansok** antolatuko du irteera, azaroaren 26an edo 27an. Asmoa Besaidetik Udalatx gailurrera igotzea da, eta handik Arrasateko Udala auzora jaitsi, han autobusa hartu eta etxera bueltatzeko. Egun osoko irteera izango da, ibilbideak lauzapost orduko ahalegina eskatzen baitu. Irteera hau aurrera atera dadin, derrigorrezko baldintza bat bete behar da: zorua lehorra egotea, Udalatx mendi harritsu delako, eta zorua hezea badago taldean joateko arriskutsua izan litekeelako, batez ere jaitsieran. Eguraldia bustia bada, atzeratu edota bertan behera utziko da txangoa.



Etxekortea ganean lainoa sartuta zegoen, argazkian ikus daitekeenez. @urnietameteo

Azaroko azken asteburuan Udalatx mendira igotzeko asmoa dute. Huraxe izango da herritik kanpo egingo den azken irteera

ETXEKORTEA IRTEERA

Beste txoko bat ezagutu izanaren sentsazioarekin itzuli ziren Zanpatuzeko kideak, joan zen asteburuan. Euriagatik astebe- te atzeratu zen irteera, eta pasa den larunbatean eguraldia eguzkitsua izan ez bazen ere, ibiltariak ez ziren busti. Nafarroa Behereko Donaixti-Ibarraren hasitako bideak Biduze errearen jaiotzan izan zuten

lehen geltokia, 20x15 metroko zabalera duen haitzulo ikusgarrian. Handik Garategorena bordara egin zuten, 800 metro pasatxora, ordurako lainoak inguratuta zeudela.

Koldo Tapia irteerako antolatzailerak taldearen esku utzi zuen Etxekortea gailurrera igotzeko erabakia, lainoak ez baitzuen bertako bista onekin gozatzeko baimenik ematen. Baiezkoa adostu, eta 45 minutuko igoeraren ostean, Arbaileetako gailur horretara iritsi zen taldea. Lepora jaitsi, otordu goxoa egin, eta Nepal mendatera jaitsi zen taldea, handik autobusez Urnietara bueltatzeko.

Ganbara saski taldea

AURREKO JARDUNALDIA:

Ganbara SenM 54-56 Bosteko
TAKE 16-67 Ganbara KadM
Goierri 60-18 Ganbara InfM

ASTEBURUKO PARTIDAK:

Ganbara KadM-Goierri
09:30 Allurralde.
Azaroak 4, larunbata.

Senior mailako eskubaloia

SENIOR NESKAK

Leizaran 25-23 Urnieta

Orekatua zegoen markagailua, aina bigarren zatian urnietarrek baloi asko galdu zituzten eta aurkariak ondo baliatu zuten hori.

SENIOR MUTILAK

Urnieta 33-30 Aritzatalde

Aurkariak erraztasunik ez zuen ipini. Urnietarrak sailkapeneko lehen postuetan daude.

Leizaran 20-33 Eibar

Senior mailako futbola

Billabona 0-0 Euskalduna

Urnieta 0-4 Allerru

Zortzigarren jardunaldia:

Euskalduna-Sanpedrotarra

Larunbata, 4. 19:15. Ubitarte.

Trintxerpe-Urnieta

Larunbata, 4. 17:30.

Sailkapena:

1. EAS08 17 puntu

2. Euskalduna 13 puntu

13. Urnieta 7 puntu

Asteburuan:

Urnieta Senior Neskak-Goierri

Azaroak 4, larunbata. 18:00.

Pala motza Urnietan

GIPUZKOAKO PALA MOTZEKO

TXAPELKETA

Azaroak 4, larunbata. 16:00.

2.maila: Urnieta 1- Eple 1.

3. maila: Urnieta- Altzatarra 2.

2. maila: Urnieta 2- Oiangu 3.

Txirrindulari gazteak profesional izatearen bidean



HITZALDIA, MAHAI-INGURUA:



Kolaboratzaileak:



EGUNA: AZAROAK 4

ORDUA: 17:30

LEKUA: BASTERO KULTUR GUNEA (Ehildak irratia)

HERRIA: ANDOAIN

EL DIARIO VASCO

IKAN

Aiurri

ANDOAINGO TXIRRINDULARI ESKOLA

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus
Publizitatea: Fernanda Irazu. publikitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04. ISSN: 1698-4870. **Tirada:** 6.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

AZAROAREN 2TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

- Andoain, Bastero**
 - El muñeco de nieve. Larunbata, 4. 19:30, 22:00. Igandea, 5. 19:30. Astel., 6. 19:30, 22:00.
 - Robby eta Toby. Larunbata, 4. 17:00. Igandea, 5. 17:00.
 - Hurrengo asteburuetan: **Toc toc, La cordillera.**
- Urnietan**
 - Calabacin, haurrentzat. Azaroak 5. 17:00. 4 euro.
 - Canta, haurrentzat. Azaroak 12. 17:00. 4 euro.

Musika

- Andoain, Bastero**
 - Gora Kaletxiki Band eta elkarreetako danbor jotzaileen eskutik, Santa Zezilia kontzertua. 20:00 Santa Krutz eliza. Azaroak 11, larunbata.
 - Atom Rhumba, Saio naiz Andoaingo Gaztetxearen urteurrenean. 22:30 Gaztetxea. Azaroak 11, larunbata.
 - Santa Zezilia zikloa: "Si las mujeres mandasen", Masa Coral del Ensanche de Bilbao eskutik. 21:30 Bastero. Azaroak 17, ostirala.

Batzarra

- Andoain**
 - Udalaren aparteko batzaraldia. 19:00 Udaletxea. Azaroak 7, asteartea.

Farmaziak

- Andoain**
 - Arzallus: Aita Larramendi, 26. Gaez: Etxebeste (Hernani).
- Urnietan**
 - Odriozola: Idiazabal, 18. Gaez: Etxebeste (Hernani). Azaroak 4 eta 5.

Dantza

- Andoain**
 - "Harri, orri, ar" Dantzataldea. 21:30 Bastero. 10 euro. Azaroak 3, ostirala.

Antzerkia

- Andoain**
 - "Amour" haur ikuskizuna. 17:00 Bastero. 4 euro. Azaroak 12, igandea.
- Urnietan**
 - "La casa de la llave", antzerkia gazteleraz. 19:30 Sarobe. Azaroak 19, igandea.

Sariketa

- Andoain, Bastero**
 - XXI. Martin Ugalde ipuin lehiaketaren sari banaketa ekitaldia. 18:30 Ekitaldi aretoa. Azaroak 9, osteguna.

Bazkaria

- Andoain**
 - 59ko kintoen bazkari eguna. Izen-ematea 60 euroko dirusarrerarekin egin behar da. Kutxabank: ES73 2095 5022 18 1060843686. Epea: Azaroak 8. Bazkaria: Txertota jatetxea. Azaroak 11, larunbata.

Erakusketa

- Andoain, Bastero**
 - "Palimpsesto", hainbat artisten eskutik. Azken eguna: Azaroak 11.
 - "Sourires", Anne Broitmanen eskutik. Irekiera: 19:00 Erakusketa gela. Azaroak 24, ostirala.

Kanpaina

- Eskualdea**
 - Errigorako saskiak erosteko aukera. Informazio gehiago 2. orrialdean.

Ekitaldia

- Andoain**
 - Goiburu bailaran, Ortzaikako karobia piztuko dute. Burdinak gonbite irekia egin du. Trikitilariak, txalapartariak, bertsolariak eta hamaiketakoa. 12:00 Ortzaika. Azaroak 4, larunbata.

Galdeketa

- Andoain**
 - Andoain Esan ekimenaren eskutik, herri galdeketa Andoainen. Hitzorduak: **Azaroak 2, osteguna:** Mahai-ingurua Kike Amorriz, Beñat Sarasola eta Oihana Iguaranekin. 19:00 Bastero. **Azaroak 5, igandea:** Herri galdeketa Andoainen. Boza emateko guneak: Gokoplaza, Juanita Alkain plaza, Zumea plaza. 09:00-20:00.

Tailerra

- Urnietan, Sarobe**
 - Autodefensa feminista tailerra, Emagin elkartearen eskutik. Interesa duten emakumeek azaroaren 9a baino lehen eman beharko dute izena, Bertan bulegoetan. Urnietan erroldaturiko emakumeek lehentasuna izango dute. 09:00-13:00 / 15:00-17:00. Azaroak 11, larunbata.

Lehiaketa

- Andoain**
 - Andoaingo Udalak 2018ko egutegia herritarren argazkiekin osatu nahi du. Sariak argazkia egutegiaren hila-beteetako batean agertzea eta ehun euroko dirusaria izango dira. Oinarriak andoain.eus gunean kontsulta daitezke. Aurkezteko epea: Azaroak 13, astelehena.

Ekitaldia Andoainen, Oroimenaren egunean

Elkarbizi erakundeak honako oharra igorri du erredakziora: "Aurtengo Oroimenaren Eguna datorren ostiralean izango da, azaroaren 10ean. Urtero bezala, bailarako Elkarbizi taldeak Andoainen antolatu dugu indarkeriaren

biktimak gogoratzeko ekitaldia. Datorren ostiralean, beraz, iluntzeko 19:30ean Lopez de la Calle parkean dagoen 'Askatasunari' eskulturaren aurrean biltzeko deia egiten diegu herritarrei".

ZORION AGURRAK

ERRAZA, DOAKOIA | diseinua@aiurri.eus | aiurri.eus | Whatsapp: 619 163 537

MERKATU TXIKIA

MERKATU TXIKIA # SALMENTA
Ford Focusa salgai, 17 urtekoa. Andoain: 629 068 158.


Beldurrezko etxea Urnietan: Gazteentzat, gazteek egin

Aurreko urteetako ohiturari jarraituz, Gaztelekuko erabiltzaile zaharrenek 'Beldurrezko etxea' antolatu dute. Azken asteetan 15-16 urteko hamar gazte lanketa berezia egiten aritu dira, Gaztelekuko hezitzaileen laguntzarekin. Izen ematea: Egunean bertan, Lekaion. Adina: 10-16 urte. Oharra: 6-8 pertsonako txandak osatuko dira. Sinopsia: "Etxeetan, familietan kaosa piztu da, herriko haurrak galdu egiten dira eskolatik etxerako bidean eta desagerturik dau-

de, adineko jendea ere hilk agertu da... Urnietan herri txikia izanik, denek elkar ezagutzen dute eta leku guztietan ez da besterik entzuten. Jendea etxean geratzen hasi da eta gauetan soinu arraroak entzuten dira. Ba omen da baserri bat herritik urrutiko aitona aspalditik ikusi ez dena... Baserri horretan zer gertatzen den ikeritza ausartuko al zarete?".

Azaroak 3, ostirala. 18:00-20:00 Lekaio.

Super Hren margoak Donostia Ospitalean



Haur txikiak dituenari eza-guna egingo zaio Donostia Ospitaleko haurren urgentziatarako gunea. Udazkeneguan asko eta asko izango dira handik igaroko direnak. Egun hauetan, Super H tal-

dekoak instalakuntza haiek edertu dituzte, paretak kolore biziz eta mardo ederrez osatuz. Aspaldikoa da Donostiako Ospitala eta Urnietako elkartearen arteko elkarlana.